

SGAE FUNDAZIOAK “TOMÁS LUIS DE VICTORIA” MUSIKA IBEROAMERIKARRAREN SGAE SARIRAKO DEIA EGIN DU, BIZIRIK DAUDEN MUSIKAGILEEI AHALIK ETA JEN-DAURREKO AITORPEN GORENENA ESKAINTZEKO, BETIERE EUREN LAN-IBILBIDEAN ERKIDEGO IBEROAMERIKARREKO MUSIKA-BIZITZA ABERASTEAGATIK NAZIOARTEKO EPAIMAHAIAREN USTEZ AITORPEN HORI MEREZI BADUTE.

ESPAINIAKO ERREGE-ERREGIN EMERITOEN
OHOREZKO PRESIDENTETZAPEAN ERATUA



MUSIKA IBEROAMERIKARRAREN SGAE SARIA
“TOMÁS LUIS DE VICTORIA”

OINARRIAK

1. Euren izaera, helburu edo edukiengatik musika eta kultura iberoamerikarrekin oro har lotuta dauden munduko edozein herrialdetako instituzio kultural eta zientifikoek gehienez ere hiru izangai aurkeztu ahal izango dituzte behar bezala arrazoitutako proposamenean: unibertsitateak, musikako goi-kontserbatorioak, institutu zientifikoak, fundazio kulturalak eta musikalak, nazioarteko jaialdiak, orkestrak edo antzoki lirikoak. Aurkezpen horretan, gainera, izangai horiek ziurtatu nahi dituzten instituzio edo pertsona ospetsuen atxikimendua ere agertu ahal izango da.
2. Proposatutako izangaien merezimenduen artean, sinesgarritasunez egiaztatu beharko da eredu-garrantzitasun gorena dutela eta euren lanek nazioartean garrantzia daukatela.
3. Hautagaiak aurkezteko orduan, web-orrian (www.fundacionsgae.org) dagoen ereduaren arabera, behar bezala betetako proposamen-inprimaki ofiziala bidali beharko da helbide ofizialera edo telematikoki informacion@fundacionsgae.org helbide elektronikora, hautagaiaren ezohiko merezimenduen eta nazioarteko garrantziaren azalpen zehatzarekin batera.

4. Hautagaien datu garrantzitsuei eta informazio osagarriari buruzko agiriak erantsi beharko dira. Agiri horiek, gainera, autoreak eta proposamena egiten duen instituzioak aukeratu beharko dituzte hamar ekarpen garrantzitsuenen artean: partiturak, grabazioak (CD, DVD eta MP3 formatuan), idazkiak edo liburuak (PDF formatuan, posta elektronikoz bidaliz gero).
5. Proposamenak ohiko postaz bidaliko dira sariaren helbidera (Bárbara de Braganza, 7. 28004 Madrid); edo, bestela, posta elektronikoz: (informacion@fundacionsgae.org) edo SGAEk Espainian eta atzerrian dituen ordezkari nagusi eta egoitzetara (ikusi helbideak hemen: www.sgae.es). Izangaiak aurkezteko epea 2021eko urriaren 5ean amaituko da. Epaimahaiaren erabakia deialdia itxi osteko hurrengo bi hilabeteetan emango da jakitera.
6. “Tomás Luis de Victoria” Musikaren Sari Iberoamerikarra irabazten duen musikagileak zergarik gabeko 20.000 euro jasoko ditu, eta ekitaldi ofizialean banatuko zaio saria.
7. Izangaien proposamenak onartzeko, aurrean aipatutako betekizunak bete beharko dituzte. Aurkeztutako agiriak ez dira inolaz ere itzuliko, eta ez da eurei buruzko gutunik trukatu.
8. SGAE Fundazioak azken urteotan aurkeztutako izangaien proposamenak balioztatu ahal izango ditu, betiere instituzio aurkezleek berresten badituzte. Horretarako, curriculuma osatu eta epaimahaiarentzat interesgarria izan daitekeen era guztietako informazioa erantsi beharko da.
9. Erkidego iberoamerikarreko herrialdeetako zenbait pertsonaia ospetsu izango dira epaimahaikideak: musikako zenbait arlotako bost pertsona ospetsu eta idazkaria. Azken horrek, gainera, hitza izango du, baina botorik ez. Horiek guztiak SGAE Fundazioak izendatuko ditu, eta, bere garaian, nor diren iragarriko da.
10. Epaimahaiak presidentea izango du, eta bertako kideen artean aukeratuko dute. Lehenengo bileran, idazkariak epaimahaia erata dagoela adieraziko du, eta, ondoren, bertako presidentea aukeratuko dute. Presidenteak eztabaidak antolatu eta zuzendu egin beharko ditu, baita sortu daitezkeen bozketak ere, hala badagokio. Idazkariak, ordea, SGAE Fundazioak alde aurretik zehaztutako araudiko klausulak interpretatuko ditu, eta bileretako akta egingo du. Hala badagokio, epaimahaiak behar besteko ahalmena izango du, bere ustez interesgarria izan daitekeen proposamenen bat egiteko, betiere epaimahaikideek aho batez onartzen badute.
11. Bozketa-sistemak amaierara arte sustatu beharko du epaimahaikide gehienek gustuko dituzten izangaien elkarren segidako hautaketa. Horretarako, zentzu positiboan bozkatu beharko da beti.
12. Ezin izango da botoa eskuordetu, eta epaimahaikideek boto bana eman beharko dute bozketa egiten denean. Kasuan-kasuan egindako bozketa bakoitzean, alde aurretiko eztabaidan egon direnek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Epaimahaiaren boto gehienak lortzen dituen izangaiari emango zaio saria. Berdinketarik gertatuz gero, presidentearen botoak erabakiko du nor den irabazlea.

13. Saria ezin izango da hil ostean eman. Era berean, ezin izango da zatitu eta eman gabe utzi.
14. Sariaren irabazlea antolatzaileen zerbitzura egongo da sariaren banaketarekin zein zabalkundearekin zerikusia duten ekitaldi guztietan. Horretarako, berariazko baimena emango die antolatzaileei, bere izen artistikoa eta irudi fotografikoa erabili, erreproduzitu eta banatu ditzaten antolatzaileek sariaren inguruan egiten dituzten soinuuzko edota ikus-entzunezko grabaketetan, publizitateko liburuxketan, eskuko egitarauetan eta komunikaziorako nahiz publizitaterako material guztietan, baita SGAE taldeko edozein erakundek bere jardueren txostenean egindako osteko edozein argitalpenetan ere.
15. Saria kudeatzeko orduan alderdiek emandako informazio guztia eta datu pertsonalak isilekoak izango dira, ezin izango zaie hirugarrenei jakinarazi eta ezin izango dira zehaztutakoak ez beste helburu batzuetarako erabili, indarreko legerian adierazitako salbuespenetan izan ezik. Alderdiek borondatez ematen dituzten datuak SGAE Fundazioaren ardurapeko fitxategian gordeko dira, eta EDBAko Datuen Babeserako Erregistro Orokorrari emango zaio horren berri. Datu pertsonalak babesteko funtsezko eskubidearen titularrak datuok eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak izango ditu. Eskubide horiek erabili nahi izanez gero, titularrak idatzia bidali ahal izango dio SGAE Fundazioari (Bárbara de Braganza, 7. 28004 Madrid). SGAE Fundazioak jakintzat ematen du emandako datuak egiazkoak direla eta gaur egungo egoerarekin bat datozela. Interesdunak aldaketen berri eman beharko du aldaketarik dagoenean.
16. Deialdi honetan parte hartzean, instituzio kultural proposamengileek eta sarirako izangaiek oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakiak onartuko dituzte oso-osorik. Erreklamaziorik aurkeztu edo gatazkarik sortuz gero, gaztelaniaz argitaratutako oinarriak bakarrik hartuko dira kontuan, eta parte-hartzaileek nahiz erakundeak Espainiako Madrilgo auzitegien jurisdikzioari men egin beharko diote.

MATERIALEN BIDALKETA

Ohiko postaz: SGAE Fundazioa - Musika Saila
Bárbara de Braganza, 7. 28004 Madrid

SGAEk Espainian zein atzerrian dituen ordezkaritza orokorrak eta egoitzak
(hementxe kontsultatu helbideak: www.sgae.es).

Posta elektronikoz: informacion@fundacionsgae.org

Interesdunek oinarri hauei buruzko era guztietako galderak egin
edo informazioa osatu ahal izango dute hemen:
informacion@fundacionsgae.org - www.fundacionsgae.org - www.sgae.es